

Martxoan erositako 10 Simply dendek beste irekiera bat

EROSKI-K SUPERMERTATU BAT INAUGURATUKO DU GAUR GETXON

- **Saltoki berrituak elikagai freskoetan espezialista den gama bat eskaintzen du; tokiko produktuen alde egiten du; dirua aurrezten laguntzen du eguneroko erosketan EROSKI Cluben bitartez; arreta pertsonala ematen du; eta bere gama zabalean ekoizleen markak eta marka propioa konbinatzen ditu**
- **EROSKI 8 milioi euro inbertitu ditu Simplyri martxoan erositako hamar dendak berritzen eta eraldatzen**
- **Hil honetan eta 2021eko lehen hiruhilekoan inauguratuko dituzte Bizkaian erositako gainerako zazpi dendak**

Getxo, 2020ko urriaren 22a.- [EROSKI](#)k supermerkatu berri bat ireki du Getxoko Itzubaltzetan, Kresaltxu kaleko 12 eta 18 ateetan. Martxoan Simplyri erositako hamar dendetatik irekitzen duen hirugarrena da. Orain arte, beste bi denda inauguratu dituzte joan den hilean Bilbon, Henao kalean bata eta Errekalde auzoan bestea. Beste bost supermerkatu aurten irekiko dira, eta gainerako biak 2021eko lehen hiruhilekoan.

Hala, EROSKI bere presentzia handituko du Bilboko auzo guztietan, eta bere eskaintza osatuko du dendak ipinita Getxon, Astrabuduan, Santurtzin, Basaurin eta Galdakaon. Era horretan, 90 supermerkatu izango ditu guztira Bilbo Handian.

Denda berriak EROSKI/City du izena, eta 840 metro koadrotik gorako salmenta aretoa du. 30 langile arituko dira, formakuntza jaso dutenak freskoen atalean espezializatzeko eta bezeroei arretarik onena eta erantzunak eskaintzeko.

Supermerkatu berriaren ezaugarrien artean, nabarmentzekoa da bezeroaren arreta pertsonalaren alde egindako apustua, okindegia, harategia, urdaitegia eta arrandegia jarri baititu. Hilero-hilero eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarri behinena. Bezero-bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta EAEn 840.000 bazkide inguru ditu; gainera, oso sustapen erakargarriak ditu, baita Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere.

Tokian tokiko produktuen garrantzi handia

"Gure dendek nortasun ikurrak dira tokiko elikagaien sorta zabala eta sasoian sasoiko freskoak, eta, horiekin batera, elikadura osasungarriaren eta jasangarriaren

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

alde hartua dugun konpromisoa", esan du EROSKIk iparraldean dituen supermerkatuen zuzendariak, Ismene Fulgenciok. Lehen seihilekoan %14,5 igo da EROSKIk Euskal Autonomia Erkidegoan saltzen dituen tokiko produktuen kopurua. Eskualdeko 10.000 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta horiek erosteko 650 milioi eurotik gora erabiltzen ditu urtero.

Produktu dietetikoek eta biologikoek ere beren tokia dute supermerkatu berrian, elikagai joera berri guztiak biltzen dituzten guneean. Gainera, atal horretan, produktu espezifikoko sorta zabal bat dago, elikagai intolerantziak dituztenentzat (glutena, laktosa...) eta gantz, azukre eta gatz gutxi jan behar dutenentzat. Horretaz gainera, lurrindegi-parafarmaziaren atal zabal bat du, eta prestakuntza berezia duen langilea edukiko du bezeroari zainketa pertsonalerako arreta oso eskaintzeko.

Era berean, saltokia jasangarriagoa da ingurumen aldetik; izan ere, kontsumitzen duen energia %60 gutxitzen du supermerkatu konbentzional baten aldean, eta eraginkortasun eta ingurumen jasangarritasun baldintza zorrotzak betetzen ditu; horrek indartu egiten du EROSKI taldeak ingurumenarekin eta gizarte ongizatearekin duen konpromisoa. Hotz industrialean aplikatzen duen berrikuntza teknologikoari esker, eraikinak gutxiago kontsumitzen du. Gainera, argiterian LED teknologia darabil; horri esker, argiztapena homogenea da eta ikusmenarentzat oso eroso, eta ingurumen arriskua eta kontsumoa gutxitzen ditu. Hala berean, zentroak baditu bestelako elementu lagungarriak ere, gehien kontsumitzen diren produktuak kontrolatu, kudeatu eta monitorizatzeko, eta, horrela, zentroaren kudeaketa eraginkor bat egiten da energia aldetik.

Janari banatzaileetan lehena EAEn

EROSKI da liderra EAEn elikagaien banaketan. 411 saltoki ditu guztira autonomia erkidegoan, hala nola supermerkatuak, hipermerkatua, cash & carryak, gasolindegia, optikak, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak, eta *on line* supermerkatua, zeina bakarra baita erosketak EAE osoko edozein etxetara eramaten dituen.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)